

# GIZARTE HEZITZAILEA BAZTANGO UDALEAN ARITZEKO

Deialdi honen xedea da oposizio-lehiaketa bidez Baztango Udalarako Gizarte hezitzaile lanpostua aldi baterako betetzea. Gizarte Hezitzaile bat bajaran dagoen pertsona lanpostura itzuli arte edota lanpostua bera amortizatu arte.

Lanpostua, oposizio-lehiaketa bidez beteko da euskara ezagutzarekin eta jardunaldi osoz Baztango Udalarako arituko dira.

Lehiaketa-oposizioa edo egindako proba gainditzen duten hautagaiekin lan poltsa sortuko da etorkizunean ordezkapenak bideratu ahal izateko, halaber, gerora begira gizarte arloko programak jarraipena badute, Nafarroako Foru Komunitatea eta Baztango Udlaren artean sinaturiko hitzarmenen arabera, eta Baztango Udalak Gizarte Hezitzaile baten beharra badu lan poltsa erabiliko da Gizarte Hezitzaile lanpostua betetzeko. Lan poltsa II. Eranskinan azaltzen diren arauen arabera kudeatuko da.

Bajaran dagoen gizarte hezitzailearen lanpostuak, lanpostuaren titularra berriz lanean hasi artio iraunen du, edo legez ezarritako bidez lanpostua behin betiko bete artio, edo lanpostua kendu artio, betiere lanpostu hori sortzea ekarri zuen beharra dagoen bitartean.

## **1.- Arau orokorrak.**

1.1. Deialdi honen xedea da oposizio-lehiaketa bidez Baztango Udalarako Gizarte hezitzaile lanpostua aldi baterako betetzea. Gizarte Hezitzaile bat bajaran dagoen pertsona lanpostura itzuli arte edota lanpostua bera amortizatu arte.

1.2. Izendapenak aldi baterako erregimen laboraleko langile bihurtuko du izendatua, lanaldi osoan. 15/2006 legearen arabera Nafarroako Foru Komunitateko eta toki entitateen arteko sinaturiko hitzarmenetan bilduko dira oinarritzko gizarte zerbitzuen jarduera guztiak, horrenbestez lan kontratuak lotura zuzena izango du Baztango Udala eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean sinatuko den hitzarmenaren edukiekin.

1.3. Urteko soldata gordina B mailako langileentzat ezarritakoa izango da.

## **2.-Izangaien betebeharrak.**

2.1. Aukeraketa honetan onartuak izateko, izangaiek ondoko beharkizunak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako:

a) Europar Batasuneko herritarra izatea edo, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio librea onartzen duten herrialdeetako herritarra; parte hartu ahalko dute, halaber, Europar Batasuneko Estatu bateko nazionalitatea dutenen ezkontideek, betiere zuzenbidez bereizita ez badaude, ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek, betiere zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik

beherakoek edo adin horretatik gorakoek, baldin eta haien kontura bizi badira.

b) Adinez nagusi izatea.

c) Gizarte hezkuntzan diplomatura/gradua edo baliokidea, edota 4/2009 Foru Legeak, apirilaren 30ekoa, Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzen duena, hirugarren xedapen iragankorran zehazten duen bezala lanbide gaikuntza lortu izana adierazten duen ziurtagiria.

d) Euskara ezagutza. C1/EGA edo baliokidea; tituluaren edo baliokideren baten bidez edo maila zehazteko azterketa bidez kreditatu beharko da.

e) Gaitasun fisiko eta psikiko nahikoa izatea dagozkion funtzioak betetzeko.

f) Eginkizun publikoak betetzeko desgaitua edo gabetua ez egotea, eta ezein administrazio publikoren zerbitzutik baztertua ez izana.

g) B1 mailako gida baimena eta kotxea

h) Haurrentzako eta Nerabeentzako Babes Sistema Aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen arabera, adingabeekin ohiko harremana duten lanpostuetan aritzeko baldintza da epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

### **3.- Eskabideak**

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Baztango Udaleko erregistroan aurkeztuko dira, edo Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusten diren bideetatik edozein erabilita. Kasu horietan eskatzaileek, beti ere epea bukatu baino lehen, faxez edo posta elektronikoz jakinarazi beharko dute eskaera aurkeztu dutela (Baztango Udaleko fax zenbakia: 948452269. baztan@baztan.eus). Eskabideak aurkezteko epea abuztuaren 7an bukatuko da. Erregistroko ordutegia honakoa izango da: 9:00etatik 14:00etara (astelehenetik ostiralera).

3.2. Izangaiek eskatutako tituluen egiaztagiriak, N.A.N.ren kopia konpultsatua eta gidatzeko baimenaren kopia konpultsatua aurkeztuko dituzte eskabidearekin batera, bai eta lehiaketan baliarazi nahi dituzten merezimendu guztienak ere. Agiriok jatorrizkoak izanen dira edo kopia kautotuak.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

3.4. Tribunalak onartutako behin betiko zerrenda argitara emango du udalaren iragarki taulan

eta udal web orrialdean ([www.baztan.eus](http://www.baztan.eus)). Bertan jakinaraziko da Euskara froga egiteko eguna eta ordua.

#### **4.- Akatsen zuzenketa.**

4.1. Dokumentazioa jaso ostean, akatsen bat balego edo eskatutako dokumentazioa faltako balitz, Udaleko idazkaritza izangaiarekin harremanetan jarriko da, bi eguneko epean eskatutako dokumentazioa aurkez dezan. Dokumentazio eskari hori zuzenduko ez balu, izangaia baztertua geldituko litzateke.

4.2. Akatsak zuzentzeko epea bukatutakoan, Udaleko iragarki taula neta web orrialdean ([www.baztan.eus](http://www.baztan.eus)) izangaien behin betiko zerrenda eta lehiaketaren puntuaketa iragarriko da. Bertan jakinaraziko da oposaketa frogak egiteko eguna eta ardua.

#### **5.- Epaimahaia.**

5.1. Ondokoek osatuko dute epaimahaia:

Lehendakaria: Baztango Udaleko alkatea

Ordezkoa: Baztango Alkateordea.

Mahaikidea: Baztango Udaleko Gizarte Hezitzailea.

Ordezkoa: Malerrekako Gizarte Hezitzailea

Mahaikidea: Baztango Udaleko Gizarte Langilea.

Ordezkoa: Baztango Udaleko Gizarte Langilea.

Mahaikidea: Baztango Udaleko Langile Ordezkaria

Ordezkoa: Baztango Udaleko Langile Ordezkaria

Mahaikide-idazkaria: Baztango Udaleko idazkaria.

Ordezkoa: Idazkariak izendatutakoa.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketa baliozkoa izateko ezinbestekoa izanen da mahaiburua eta idazkaria bertan egotea, edo haien ordezkoak, eta kideen erdiak, gutxienez.

5.3. Urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena 40/2015 Legean aipatzen diren abstentzio arrazoietakoa bat gertatzen denean, epaimahaiko kideek ezin izanen dute epaimahaian parte hartu, eta deialdia egin duen organoari eman beharko diote horren berri.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzea, arrazoi horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sortzen diren arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek epaimahaia lagunduko dute, nork bere espezialitate teknikoan.

## 6.- Oposizio-lehiaketa aldia

6.1. Oposizio-lehiaketa bi fasetan egingen da: lehenbizi lehiaketaldia, eta oposizioaldia ondoren.

### A) LEHIAKETALDIA

6.2. Epaimahaiak oposizio-fasea gainditu duten izangaien merezimenduak bakarrik baloratuko ditu, ondoko merezimenduen baremoaren arabera. Izangaiek merezimendu guztiak agiri bidez frogatu beharko dituzte, oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztean, jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatuak erabiliz horretarako. Horrela egin ezean, ez dira kontuan hartuko.

6.3. Merezimenduak (gehienez 20 puntu)

1.- Lan esperientzia (gehienez 14 puntu):

a) Oinarrizko Laguntzako Haur eta Familientzako laguntzako Programa eta/edota Oinarrizko Laguntzako Gizarteratze Programaren arduradun gisa administrazioa publikoan aritu izana. Urte bakoitzeko: 2 puntu.

b) Gizarte Hezitzaile langile gisa aritu izana administrazio publikoan. Urte bakoitzeko puntu bat.

c) Gizarte Hezitzaile gisa aritu izana administrazio publikotik kanpo. Urte bakoitzeko 0,5 puntu. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: administrazio zein enpresa ziurtagiriak.

2.-Formakuntza (gehienez ere 6 puntu balioko du atal honek)

a) Gainditutako formakuntza edo hobekuntza ikastaro bakoitzeko, administrazio publikoek antolatutakoak edota akreditatutakoak, eskeintzen den lanarekin lotura dutenak:

- 30 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko: 0,50 puntu.

- 100 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko: puntu bat.

Ziurtatu beharreko dokumentazioa: egindako ikastaroen tituluen edota ziurtagirien fotokopia konpultsatua, ikastaroaren iraupenaren ordu kopurua zehazten duena.

6.4. Epaimahaiak noiznahi eskatzen ahalko ditu lehiatzaileen merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak.

### B) OPOSIZIO ALDIA (gehienez ere 80 puntu balioko du atal honek)

6.5. Ondoko ariketa egin beharko da:

Lanpostuari dagokion ezagutza proba, gehienez 80 puntu: III. Eranskinan agertzen diren gaien buruzko froga teorikoa-praktikoa (galdera motzak edota garatzeko gaiak. Probaren iraupena, gehienez 2 ordutako izanen da.

6.6. Ariketa bukatutakoan emaitzak, epaimahaiak jendaurrean jarriko ditu, bai Udalaren iragarki oholean bai web orrian, gainditu dutenen zerrenda eta lortutako kalifikazioak.

6.7. Ariketarako dei bakarra egingen da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute edo, bestela, epaimahaiaren iritziz onargarria den beste nortasun agiriren bat. Oposiziotik kanpo geldituko dira agertzen ez direnak edo nortasuna aipatutako agirien bidez frogatzen ez dutenak.

## **7.- Oposizioaldia gainditzen dutenen zerrenda**

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa bukatutakoan, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda jarriko du jendaurrean Udaleko iragarki-taulan. Izangaiak oposizioaldiko ariketetan lortutako kalifikazioak batu, eta horren arabera ordenatuko du zerrenda eta, orobat, izendapen proposamena eginen du puntuaziorik handiena duen izangaiaren alde. Gainerako kideek ordezkapen poltsa batean sartuko dira.

7.2. Izangaiak 2.1. puntuan aipatzen diren betebeharrak betetzen dituela adierazteko agiriak aurkeztu beharko ditu. Izangaiak ez baditu agiri horiek aipatutako epean aurkezten, behar bezala arrazoituriko ezinbesteko kasuetan izan ezik, ez da izendatua izanen eta egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, eskabidean egindako faltsukeriagatik legokiokeen erantzukizuna galarazi gabe.

7.3. Aurreko atalean azaldutakoa gertatuz gero, 7.1 atalean agertu bezala, gainditzen dutenen zerrendan, hurrengo izangaiak beteko du hutsunea, eta harekin ere aurreko ataletako prozedura bera erabiliko da.

## **8.- Errekurtsoak.**

8.1. Deialdiaren, oinarrien eta bere aplikazio egintzen aurka, honako errekurtso hauek aurkezten ahal dira, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, jakinarazpenaren ondoko hilabetean.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, bi hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

I. ERANSKINA

Eskabide eredu

Izena: ....., adinez nagusia. Nortasun Agiri Nazionala:  
..... (edo balio bereko beste agiriren bat). Sorteguna: ..... Sorterria:  
.....(.....). Gaur egungo helbidea (herria, probintzia, kalea, zenbakia, posta  
kodea): .....  
Telefonoa: ..... Posta elektronikoa:.....

Zure aitzinera agertu eta honako hau azaltzen dut:

Gizarte hezitzailea behin behineko izateko lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartua izateko eskatu nahi dudala.  
Deialdiko beharkizun guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Horrenbestez:

Gizarte hezitzailea behin behineko izateko lanpostu, oposizio-lehiaketa bidez, betetzeko deialdian onar nazazula eskatzen dut.

.....an, .....ko .....ren .....an  
sinadura

## **II. ERANSKINA**

### **Lan poltsaren arauak:**

#### **Deia egiteko irizpideak.**

1. Lehiaketa-oposizioa edo egindako proba gainditzen duten hautagaiekin lan poltsa sortuko da etorkizunean ordezkapenak bideratu ahal izateko, halaber, gerora begira gizarte arloko programak jarraipena badute, Nafarroako Foru Komunitatea eta Baztango Udlaren artean sinaturiko hitzarmenen arabera, eta Baztango Udalak Gizarte Hezitzaile baten beharra badu.
2. Puntuazio ordenaren arabera egingo dira beti ere deiak, ondoko paragrafoetan xedaturikoari kalterik egin gabe.
3. Telefonoz, posta elektronikoz edo pertsona interesatuarekin berehala komunikatzeko aukera emango duen beste edozein bidez egingo dira lan eskaintzen jakinarazpenak. Eskaintzaren jakinarazpena egiteko orduan, bereizi egingo dira zerbitzu arrunten edo presazkoen prestazioak.
4. Zerbitzu arruntak emateko Baztango Udalak bi jakinarazpen edo abisu saio egingo ditu bi eguneko epean. Kontuan harturiko lan-poltsan dagoen pertsonak gehienez ere 24 orduko epean onartu edo gaitzetsiko du eskaintza. Ezin izan bada harekin harremanetan jarri, edo eskaintza ez balitz onartuko, puntuazio ordenaren arabera zerrendan dagoen hurrengoari egingo zaio eskaintza.
5. Presazko zerbitzuak direnean, jakinarazpen edo abisu saio bakarra egingo da. Kasu horietan jakinarazten den une berean onartu edo gaitzetsi beharko da eskaintza. Ezin izan bada harekin harremanetan jarri, beste tramiterik gabe, puntuazio ordenaren arabera zerrendan dagoen hurrengoari egingo zaio eskaintza.
6. Justifikaziorako eta kontsultarako, hala behar badu, indarrean dauden lan-poltsen erregistro xehea eramango da, eta baita hautagaiekin harremanetan jartzeko eginiko saio edo/eta tramiteen erregistroa ere, hala behar izanez gero, horien aldetik jasotako erantzunez gainera.
7. Lan poltsako kide batek behin lanean hasi ondoren lana utziko balu, lan poltsatik kanpo geratuko litzateke. 15 egun lehenago lana utziko duela jakinaraziko balu, lan poltsatik kanpo 5 hilabetez geratuko litzateke besterik ez.
8. Gizarte Segurantzako mediku batek eritasunez edota istripuz aldi baterako lan ezintasuna ziurtatuko balu deitutako hautagaia ez da lan poltsatik baztertuko. Edo lanean badago.
9. Lan poltsa hau indarrean egongo da helburu bera izango duen beste lan poltsa eratu bitartean.

#### **Zerbitzuen prestazioaren jarraipena**

- Amatasun baimenak eta jarraian hartutako oporrak edo beste baimen batzuk ere pertsona berak beteko ditu segidan, etenik gabe, gertatzen badira.

- Behin-behineko izendapena edo kontratua lan-poltsa batetik etorritako hautagai bati egin bazaio eta, hura bukatutakoan, gehienez ere 30 eguneko epean berriro ere lanpostu hori bete behar bada, bete behar horren arrazoia lehenengoaren berdina ez izan arren, hasieran postua bete zuen pertsona bera kontratatu edo izendatuko da, izendapen edo kontratu berriaren iraupena sei hilabetetik gorakoa denean izan ezik.



### **III. ERANSKINA**

#### **Ezagutza probarako gaitegia:**

-15/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Gizarte zerbitzuei buruzkoa.

-15/2005 Foru Legea, abenduaren 5koa, haurrak eta nerabeak sustatu, zaindu eta babestekoa

-Haurren babesgabetasun-egoerak detektatzeko, jakinarazteko, baloratzeko eta horietan esu hartzeko prozeduraren II. Eskuliburua

-15/2016 Foru Legea, azaroaren 11koa, gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituena.